

Egitaraua

ANOETA KANPOKALDEAN

- 10:30ean, egunaren hasiera ekitaldiari ukitu koloretsua emateko, gure artean, Porrotx eta Irrien Lagunakeko pertsonaiak egongo dira, entzierro eta guzti. Ordu horretatik aurrera, haurren gozamenerako, Irrien Lagunak jolasgunea martxan egongo da.
- Ordu berean, 10:30ean, gure barnealdeak gozatu nahi dituen txokolatada dastatzeko parada izango dugu. Hasieratik, bertako jaki eta edarien guneak zabalik egongo dira.
- Goizean zehar, kale animazioak, gure bihotzak eta gorputzak dantzan jarriko ditu: joaldunak, trikitixa, batukada, Debako Elektro-txaranga...
- 11:00etan, Porrotxek eta Irrien Lagunakeko pertsonaiek, gure oroitzapenetan geratuko den saioa eskainiko digute.
- 11:00ak eta 13.00ak bitartean, euskal kultura, kirola eta giro jatorra uztartzen dituzten euskal jokoak egongo dira,
- 11:30ean, eguneko magia, Txan magoaren eskutik helduko zaigu.
- 12:00etan, Irrien Lagunak kanta eta dantza.
- Ordu berean, nagusiagoentzat eta karparen barnealdean, Dj. Bullek dinamizatuko du giroa.
- 13.00tan, edukiak partekatzeko ekitaldi arina.
- Ekitaldia eta gero, kale animazioak bereak eta bi egiten jarraituko du.
- 14:00etan, Ze Esatek musika taldeak, gazteak eta ez hain gazteak dantzan jarriko gaitu.

ANOETA BARNEAN (SARRERA IZATEA BEHARREZKOA DA)

- 15:00etatik aurrera, Debako Elektro-txarangarekin eta batukadarekin, denok Anoetaren barnealdera... partida aurreko ikuskizunez gozatzera eta gure nesken selekzioa animatzera!
- 15:30ean, Alex "Gatibu", Ange Duhalde eta Naroa "Amaiur" abeslarien kantaldi zoragarria.
- 16:00etan, emozioz beteriko lehen mailako kirol-lehia. Tartean Mikel Odriozola martxalari olinpiarra eta beste zenbait atleta ezagun.
- 16:20ean, emakumezko futbol aitzindariari omenaldi hunkigarria.
- 16:30ean, **EUSKAL HERRIA-ESLOVAKIA NAZIOARTEKO EMAKUMEZKOEN FUTBOL-PARTIDA**
 - Atsedenean, zozketa bidez hautatutako herritarrok, Asier Riesgo atezaina gaindituz gero, "lehen mailako" gol bat sartzeko aukera izango dugu. Penaltiok jaurti ahal izateko izen ematea [hemen bertan](#), Ekainaren 21a baino lehen...

ANOETA KANPOALDEAN

- 18:15etik aurrera eta 20:00ak arte, aldarriei eta festari segida eman nahi diogun guztiontzat, bertako jaki eta edarien guneak zabalik egongo dira.

*San Joanak ospatzen dituzten herrietako jaiez gozatu ahal izateko, futbol-partida arratsaldeko 16.30etara ekarri dugu, tokian tokiko San Joan horietara garaiz itzuli ahal izateko...

*Bestalde, antolatzaileok autobusak antolatzeko ahaleginetan gauden arren, ahalik eta jende gehien bertaratu dadin, tokian tokiko autobusak antolatzeko deia egiten dugu...